# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia | Iruña, 2025eko maiatzaren 28a | 69. ZK.


**A U R K I B I D E A**

F SAILA:

**Galderak:**


—11-25/PES-00077. Galdera, larritasuneko diagnostiko klinikoak ez berandutzeko mekanismoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).

—11-25/PES-00078. Galdera, Orbital Critical Systems enpresarentzako laguntza ekonomikoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).

—11-25/PES-00079. Galdera, Nafarroako Gobernuaren metabertsoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).

—11-25/PES-00080. Galdera, Klima-aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren arloko politikarako Gizarte Kontseilua eratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

—11-25/PES-00081. Galdera, basa-fauna kontrolatzeko planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

—11-25/PES-00082. Galdera, jakiteko ea Nasuvinsak zergatik ez zuen ekintzarik abiarazi Estudios Melitón zordunaren aurka. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

—11-25/PES-00083. Galdera, Nafarroako Etxebizitza Hutsen Erregistroa berrabiarazteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

—11-25/PES-00084. Galdera, pandemian zehar Nafarroako enpresak NBEz hornitzeko ekimenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

—11-25/PES-00085. Galdera, SODENAren eta Albyn Medical-en arteko "Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenari" buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

—11-25/PES-00086. Galdera, SODENAren eta Albyn Medical-en arteko "Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenaren" zioen azalpeneko VI. puntuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

—11-25/PES-00087. Galdera, SODENAren eta Albyn Medical-en arteko "Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenaren" zioen azalpeneko VIII. puntuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

—11-25/PES-00088. Galdera, jakiteko zer irizpide baliatu den ezartze aldera zer zenbateko hartu duten beren gain Albyn Medical-ek eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak adiskidetasunez likidatzeko "NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenean" SODENArekin ezarritako lotura. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
—11-25/PES-00089. Galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikara bideratutako giltzurruneko transplanteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
—11-25/PES-00090. Galdera, Artaxoako San Saturnino eliza zaharberritzeko obretarako dirulaguntzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
—11-25/PES-00091. Galdera, Albyn Medical enpresari jasanarazitako BEZari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
—11-25/PES-00092. Galdera, Nasuvinsak eta Nafarroako udalek etxebizitza publikoa sustatze aldera sinatutako hitzarmenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
—11-25/PES-00093. Galdera, Barañainen zahar-etxe publiko bat sortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
—11-25/PES-00094. Galdera, lurralde-berrikuntzako bi zentro berriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
—11-25/PES-00095. Galdera, Baztan Bidasoa Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
—11-25/PES-00096. Galdera, Iruñerria Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
—11-25/PES-00097. Galdera, Nafarroako Pirinioak Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
—11-25/PES-00098. Galdera, Plazaola-Sakana-Ultzama Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
—11-25/PES-00099. Galdera, Pirinioaurrea eta Zangozerria Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
—11-25/PES-00100. Galdera, Nafarroako Goi Erribera Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
—11-25/PES-00101. Galdera, Nafarroako Erribera Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).
—11-25/PES-00102. Galdera, Estellerria Maitia Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
—11-25/PES-00103. Galdera, Urdina Aragoi ibaiko bidea Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
—11-25/PES-00104. Galdera, Nafarroako Erdialdea Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
—11-25/PES-00105. Galdera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren euskarazko eskaintzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
—11-25/PES-00106. Galdera, Pablo Sarasate Musika Kontserbatorio Profesionalaren euskarazko eskaintzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
—11-25/PES-00107. Galdera, Nafarroako administrazio publikoetan sartzeko eta bertako lanpostuak betetzeko merezimenduak nola baloratu arautzen duen azaroaren 6ko 97/2024 Foru Dekretuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
—11-25/PES-00108. Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak garatzen dituen Hekzuntzako kontseilariaren maiatzaren 24ko 57/2024 Foru Aginduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
—11-25/PES-00109. Galdera, Hezitzaileen Eskolari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
—11-25/PES-00110. Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako eta pribatu itunduetako Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuaren prestaketa arautzen duen Hezkuntzako kontseilariaren otsailaren 19ko 16/2019 Foru Aginduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
—11-25/PES-00111. Galdera, Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (39. or.).

F saila:
GALDERAK

# 11-25/PES-00077. Galdera, larritasuneko diagnostiko klinikoak ez berandutzeko mekanismoei buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak larritasuneko diagnostiko klinikoak ez berandutzeko mekanismoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 21eko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-25/PES-00077), honako hau jakite aldera: “Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zentroek zer tresna jarri dituzte abian zertarako eta, maiatzaren 24ko 556/2023 Ebazpenean ezartzen den legez, prozesu baten ebazpena edo diagnostiko kliniko larria ekartzen ahal duten proba osagarriak egin osteko emaitzen kontsultek ez dezaten izan une horretan egoten ahal diren gainerako hurrengo kontsultek dituzten atzerapenak?” Hona Nafarroako Gobernuaren Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Lehentasuna dute azterketa arrunten aldean.

Emaitzak aztertzeko hitzorduak agenda medikoetan baino ez dira ematen.

Prozesu edo diagnostiko larri bat egoten ahal delako susmoa izanez gero, beti dago zuzeneko komunikazioa probaren eta kontsultaren artean, baita kanpoko zentroetan artatzen diren pazienteen kasuan ere (mamografiak), zirkuitu bat ezarri baita zuzenean eskatu ahal izateko presako kontsulta bat egun gutxitan.

Aukera gehitu da laborategitik gertaera bat bidaltzeko, emaitzen taulan ager dadin “Analisi bateko emaitza kritikoak” adierazten dituen abisua, baita “Espero ez zen emaitzaren” alerta bidaltzeko aukera Anatomia Patologikotik ere. “Espero ez zen emaitza” bat ez da emaitza patologikoa, baizik eta proba horretan diagnostikatzea espero ez zen zerbait, eta proba eskatzeko arrazoiaren arabera.

Profesional guztiak daude haien HKIko emaitzen taulari adi, han jasotzen baitituzte beraiek eskatutako proben txostenak. Probaren emaitza patologikoa nahiz gaiztoa bada, profesionalak behar den guztia egiten ahal du emaitzen kontsulta aurreratze aldera, baita prozesua aurreratzeko behar diren beste ekintza batzuk ere.

Zerbitzu batzuetan, erizainek parte hartzen dute fakultatiboek kontsultategian ikusi dituzten pazienteen emaitzen taula begiratzeko eta emaitza horiek kudeatzeko.

Alerta informatikoak ari dira garatzen HKIn (altua, baxua, ertaina eta altua, baita emaitza gaiztoenak ere).

Laborategian “analisi bateko emaitza kritikoaren“ abisu bat dagoenean, telefonoz jakinarazten zaio eskatzaileari.

Oinarrizko Osasun Laguntzan, paziente bati proba osagarri bat egiten bazaio eta emaitzak diagnostiko kliniko larria adierazten badu, OOLko medikua harremanetan jartzen da ospitaleko kasuko profesionalarekin telefono dei bidez edo interkontsulta ez presentziala eginez; hori da OOLren eta ospitalearen arteko komunikabidea zalantzak argitzeko nahiz presako kasuen berri emateko. Oinarrizko Osasun Laguntzan profesionalek proba osagarriak eskatzen ahal dituzte. Emaitza automatikoki iraultzen da hari buruzko txostena egin edo sortu bezain azkar, mediku titularraren agendaren erlaitz batean. Berrikustean premia nahiz larritasuna adierazten

duen emaitza bat ikusten denean, familia medikuak zenbait aukera baliatzen ahal ditu detektatutako beharraren arabera. Zenbait aukera daude: lehentasunez deribatzea kasuan kasuko espezialitatera, kasua “interkontsulta ez presentzial” bidez kontsultatzea, bi alorretako profesionalen arteko komunikazio bidea baita, ospitaleko larrialdietara deribatzea edota zuzenean harremanetan jartzea telefonoz espezialistarekin.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 7an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

---

## 11-25/PES-00078. Galdera, Orbital Critical Systems enpresarentzako laguntza ekonomikoei buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Laura Aznal Sagasti andreak Orbital Critical Systems enpresarentzako laguntza ekonomikoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 28ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

**Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Orbital Critical Systems-i emandako laguntza ekonomikoei buruz (PES-11-25/00078). Hona Nafarroako Gobernuaren Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

2015az geroztiko deialdien bidez jasotako laguntzak erantsi dira.

| PROZEDURA | IZENA | ZENBATEKOA | PARTIDA | EKITALDIA |
|---|---|---|---|---|
| Teknologoak 2015 | ORBITAL SISTEMAS AEROESPACIALES SL | 19.896,80 | G/180011/4701/467302: Ikertzaileak eta teknologoak kontratatzeko laguntzak | 2015 |
| Teknologoak 2016 | ORBITAL SISTEMAS AEROESPACIALES SL | 17.569,30 | G/820005/4701/467302: Ikertzaileak eta teknologoak kontratatzeko laguntzak | 2016 |
| Teknologoak 2016 | ORBITAL SISTEMAS AEROESPACIALES SL | 17.569,30 | G/820005/4701/467302: Ikertzaileak eta teknologoak kontratatzeko laguntzak | 2016 |
| Teknologoak 2016 | ORBITAL SISTEMAS AEROESPACIALES SL | 17.569,30 | G/820005/4701/467302: Ikertzaileak eta teknologoak kontratatzeko laguntzak | 2016 |
| Teknologoak 2016 | ORBITAL SISTEMAS AEROESPACIALES SL | 17.569,30 | G/820005/4701/467302: Ikertzaileak eta teknologoak kontratatzeko laguntzak | 2016 |
| Teknologoak 2017 | ORBITAL SISTEMAS AEROESPACIALES SL | 16.882,73 | G/820005/4701/467302: Ikertzaileak eta langile teknologikoak kontratatzeko laguntzak; industriako doktoregoak; ikertzaileen mugikortasuna | 2018 |
| Teknologoak 2017 | ORBITAL SISTEMAS AEROESPACIALES SL | 17.569,30 | G/820005/4701/467302: Ikertzaileak eta langile teknologikoak kontratatzeko laguntzak; industriako doktoregoak; ikertzaileen mugikortasuna | 2018 |
| Teknologoak 2020 | ORBITAL SISTEMAS AEROESPACIALES SL | 10.000,00 | G/G20001/4701/467300: Suspertu Plana. Ikertzaileak eta langile teknologikoak kontratatzea, industriako doktoregoak eta ikertzaileen mugikortasuna. | 2021 |
| Teknologoak 2023 | ORBITAL SISTEMAS AEROESPACIALES SL | 8.087,43 | G/G20001/4701/467300: Ikertzaileak eta langile teknologikoak kontratatzea, industriako doktoregoak | 2024 |

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 18an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

**Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuan 202501732 irteera zenbakiarekin erregistratua, 2025eko urtarrilaren 25ean (1125/PES-00078 galdera), askotariko informazioa eskatzeko Orbital Critical Systems enpresak aplikatutako onura fiskalei eta dirulaguntzei buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Eskaeraren edukia hartu behar da kontuan: Orbital Critical Systems enpresak aplikatutako laguntzak, dirulaguntzak eta onura fiskalak. Horren arabera, jotzen da eskaera egin duen parlamentariak hain zuzen ere laguntzen nahiz dirulaguntzen eta onura fiskalen kontzeptuak bereizi nahi dituela, kalifikazio eta irismen desberdinak dituztelako.

Hala, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeak 2.1 artikuluan ezartzen duenez, pertsona publiko edo pribatuen alde egindako diruzko xedapena da dirulaguntza, baldintza hauek betetzen dituena:

a) Dirua ez onuradunen, ez hirugarren pertsonen zuzeneko kontraprestaziorik gabe ematea.

b) Dirua emateko baldintza izatea xede jakin bat bete dadila, edo proiekturen bat gauzatu, jardueraren bat egin nahiz jokabide berezia har dadila (xede horiek jada burutuak izan daitezke nahiz oraindik burutu gabeak), edo inguruabar jakin batzuk gertatzea; eta onuradunari betebehar material eta formal batzuk ezartzea.

c) Finantzatzen den proiektu, ekintza, jokabide edo egoeraren helburuak onura publikoko edo gizarte intereseko jardueraren bat sustatzea edo xede publikoren bat sustatzea izan behar du.

Gainera, lege-arau berak 2.3.b) artikuluan zehazten duenez, zerga-onurak ez dira dirulaguntzatzat hartuko.

Hori dela-eta, ohartarazten da erantzun hau Orbital Critical Systems entitateak aplikatutako onura fiskalak direla-eta eskatutako informazioari buruzkoa baino ez dela, eta ez jaso ahal izan dituen dirulaguntzei buruzkoa. Zentzu horretan, onura fiskalen kontzeptua adiera zabalean interpretatu behar da, hau da, aipatu zergadunak izan zitzakeen kenkari edo salbuespen fiskalak barne hartuta. Erantzunak, hala ere, ez dio eragiten entitate horrek Nafarroako Gobernuaren beste departamentu batzuetatik jaso ahal izan dituen dirulaguntzei buruzko informazio-eskaerari, eta halakorik ez du aipatzen gainera.

Antzeko beste informazio-eskaera batzuetan erantzun dugun bezala, esan behar da Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren (hemendik aurrera, TFLO) 105.1 artikuluan araututa dagoela Nafarroako Foru Komunitateko Zerga Administrazioak datuak lagatzeari buruzko gaia; honako eduki honekin hasten da artikulu hori:

“bere eginkizunen barnean zerga administrazioak lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak dira, eta aginduz kudeatu behar dituen tributuak edo baliabideak benetan aplikatzeko erabiliko dira bakarrik.

Ezin izanen zaizkie hirugarrenei laga edo komunikatu”.

Hori dela-eta, lege-araudiak argi eta garbi xedatzen du Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean jaso dituen datuak isilpekoak direla eta zergen ikuspegitik garrantzitsuak diren helburuetarako soilik bideratu edo erabil daitezkeela; hau da, zergak aplikatzeko bakarrik erabili ahal izanen direla. Izaera erreserbatu horren arrazoia da zergadunek zerga-araudia aplikatzeko eginkizuna eraginkortasunez bete dezan zerga-administrazioari bidaltzen eta ematen dizkioten datuen pribatutasuna zaindu behar dela. Hala ere, erraza da ulertzea erreserba hori ezin dela erabatekoa izan, batzuetan tentsioa egon baitaiteke datuen pribatutasunaren eta baliabideen kudeaketa publikoan nagusi izan behar duen gardentasunaren artean. Horren arabera, bien arteko oreka bilatu behar da (pribatutasuna eta gardentasuna), ez daitezen kaltetu ez eskubide indibidualak, ez eta kolektiboak edo gizartearenak ere.

Oreka hori lortzera bideratuta dago aipatutako TFLOren 105.1 artikulua bera, eta, arauaren hasierako argitasuna eta sendotasuna gorabehera, lagapen edo jakinarazpen hori baimentzen duten zenbait salbuespen edo lege-gaikuntza ahalbidetzen ditu.

Aipatutako 105.1 artikuluko salbuespen edo gaikuntzen artean ez dago eskatutako informazio-eskaerara egokitzen den inolako kasurik, eta, beraz, ezin da Orbital Critical Systems enpresak azken hamar urteetan aplikatutako zerga-onurei buruzko informaziorik eman.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 18an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

## 11-25/PES-00079. Galdera, Nafarroako Gobernuaren metabertsoari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Nafarroako Gobernuaren metabertsoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 28ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-11-25/00079) Nafarroako Gobernuaren metabertsoari buruz. Hona Nafarroako Gobernuaren Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Nautilus Experiencias Digitales VR enpresa ari da Nafarroako Gobernuaren metabertsoko hobekuntza guztiak egiten.

Egiten ari diren jarduketak, alde batetik, gune nagusia hobetzearekin lotuta daude. Nafarroaren 360 ikuspegiko proiekzioak lantzen ari dira, gune hori Nafarroako Foru Komunitatearen beste erakusleiho bat izan dadin.

Bestalde, eta urriko osoko bilkuran jakinarazi zen bezala, Hezkuntza Departamentuarekin batera lanean ari gara DBHko ikasleei zibersegurtasunari buruzko prestakuntza emateko proba pilotu bat egiteko.

Digi Guardians izeneko bideojoko baten bidez egiten ari gara hori, zeina Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak gazteendako egindako jardunaldi bakoitzaren amaieran txertatzen baita. Jardunaldi horiei “Aro digitalean seguru ibili” deritze. Metodo horri jarraitzen zaio jokoa irabazteko beharrezkoa delako jardunaldian zehar ikasitakoa aplikatzea.

Gure helburua da gazteen alfabetatze digitala sustatzea eta zibersegurtasunari eta teknologiaren erabilera arduratsuari buruzko prestakuntza ematea.

Horretarako, 17.876,54 euroko kontratu txiki bat formalizatu da, Nafarroako 2024ko Aurrekontu Orokorren partida honen kargura: “G/G30001/G3100/2262/921C00 Alfabetatze digitalerako sustapen eta sentsibilizazio ekintzak”.

Aurrekontu horrekin, Digi Guardians bideojokoa sortu da, eta Nafarroako Gobernuaren metabertsoaren gune nagusirako sarrera eguneratzen ari gara.

Digi Guardians pilotatze fasean dago, idatzizko erantzun honekin batera doan prentsa-oharraren bidez jakinarazi dugun bezala (Digi Guardians proba pilotua).

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 18an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

# 11-25/PES-00080. Galdera, Klima-aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren arloko politikarako Gizarte Kontseilua eratzeari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak Klima-aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren arloko politikarako Gizarte Kontseilua eratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 28ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-25/PES-00080 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Politikari buruzko Gizarte Kontseilua eratzeari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Politikari buruzko Gizarte Kontseiluaren araudia izapidetze-egoera aurreratuan dago, eta Nafarroako Kontseiluaren irizpena baino ez da falta. Irizpena jaso ondoren, seguruenik aste gutxiren buruan, araudia onetsi eta argitaratuko da. Une horretan, Kontseilua eratzeko lehenbiziko bilkura deitu ahal izanen da.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 18an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

---

# 11-25/PES-00081. Galdera, basa-fauna kontrolatzeko planari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak basa-fauna kontrolatzeko planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 28ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-25/PES-00081 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Basa-fauna Kontrolatzeko Planari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Fauna zinegetikoari eta hura kontrolatzeari dagokienez, honako hau jakinarazten da:

Espezie zinegetikoen populazioen jarraipenari dagokionez, ehiztarien elkarteek, ingurumen zaindariek edo beste azterlan batzuek urtero emandako informazioa biltzen da.

Kontrol neurriei dagokienez:

1. Fauna zinegetikoaren kontrola indarrean dagoen araudiaren arabera egiten da: Nafarroako ehizari buruzko abenduaren 22ko 17/2005 Foru Legea eta haren erregelamendua onesten duen ekainaren 11ko 48/2007 Foru Dekretua.

2. Zehazki, eta kalteen kontrolari dagokionez, 2021ean 207E/2021 Foru Agindua landu zen, abuztuaren 3koa, zeinaren bidez onesten baita pertsonen osasunari edo segurtasunari, nekazaritzari, basogintzari, abeltzaintzari edo basa-faunari kalte handiak egiten dizkieten ehiza-espezieak zinegetikoak kontrolatzeko metodoak arautzen dituen xedapena.

Araudi horrek espezie zinegetikoek eragindako kalteak kontrolatzeko baimenen prozedura guztiak erraztu eta sinplifikatu zituen.

Adibidez, untxiaren kasuan, Nafarroako Gobernuak untxiek eragindako kalteak prebenitzeko planak finantzatu eta egiten ditu, gaur egun 33 toki-erakunderentzat. Urteko ebazpen bakar baten bidez baimentzen dira, salbuespen gisa, ehiza-barruti horietan nekazaritzari eragindako kalteengatik untxiak harrapatzeko baldintzak, bai eta lehen aipatutako planen onespena ere.

3. Beste maila exekutiboago eta espezifikoago batean, eta Nafarroako ehiza-barruti guztietarako, Ehiza Antolatzeko Planen bidez ezartzen da barrutietako fauna zinegetikoaren kontrola.

Aurreko guztia populazio zinegetikoen kontrolari dagokio. Beste arlo batzuei begira, gogorarazi behar da toki-erakundeek eta ehiztari-elkarteek urtero dutela kalteak prebenitzeko eta ehiza-zaindariak kontratatzeko laguntzen deialdi bat.

Aurreko guztiaz gain, gaur egun, eta sektorearekin batera, Nafarroarako ehizari buruzko araudi berria egiten ari gara, gai horrekin lotutako alderdiak jasoko dituena. Adibidez, alderdi horietako bat izanen da, dagoeneko Ehizako Aholku Batzordean landutakoa, espezie zinegetikoek sortutako kalteek ukitutakoak ehiza-barrutien tipologian sartzea.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 24an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

---

## 11-25/PES-00082. Galdera, jakiteko ea Nasuvinsak zergatik ez zuen ekintzarik abiarazi Estudios Melitón zordunaren aurka

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, jakiteko ea Nasuvinsak zergatik ez zuen ekintzarik abiarazi Estudios Melitón zordunaren aurka, 2025eko otsailaren 28ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariaren erantzuna**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak informazio eskaera egin du (11-25/PES-00082). Hona hemen eskatutako informazioa:

– Nasuvinsak zergatik ez zuen Estudios Melitón zordunaren aurkako ekintzarik abiarazi, Iruñeko Merkataritza arloko 2. Epaitegiaren 2023ko apirilaren 24ko autoa ikusita?

Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Ez epaitegiak eta ez konkurtso administrazioak ez zioten ezer jakinarazi Nasuvinsari, harik eta sozietate publiko horrek epaia betearazteko eskatu zuen arte 2024ko abuztuan. Beraz, NASUVINSA ezin izan zen konkurtsoan agertu, aspalditik amaituta zegoelako.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 18an

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

**Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariaren erantzuna**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin zuen (11-25/PES-00082), Nasuvinsak Estudios Melitón zordunaren aurkako ekintzarik ez abiaraztearen arrazoiei buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Industriako eta

Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak horri buruz emandako informazioa:

1. Nasuvinsak zergatik ez zuen Estudios Melitón zordunaren aurkako ekintzarik abiarazi, Iruñeko Merkataritza arloko 2. Epaitegiaren 2023ko apirilaren 24ko autoa ikusita?

2. Sodenak zergatik ez zuen Estudios Melitónen aurkako ekintzarik abiarazi, Iruñeko Merkataritza arloko 2. Epaitegiaren 2023ko apirilaren 24ko autoa ikusita?

Horri dagokionez, eta 2. galderari (Sodenari buruzkoa) erantzuteko, honako hau adierazten da:

2018ko urrian, Sodenako zuzendaritza batzordeak onetsi zuen 60.000 euroko partaidetza-mailegu bat ematea Estudios Melitón enpresari, zeina 2018ko abenduan formalizatu baitzen.

Enpresak bere ordainketa betebeharrak bete zituen 2022ko uztailera arte, baina orduan gertatu zen interesen lehen ez-ordaintzea, 2022ko lehen seihilekokoena hain zuzen ere (557,88 euro). Printzipalaren saldo bizia 37.500 eurokoa zen 2022ko uztailean.

2022ko lehen seihilekoko interesak ordaindu ez zirenetik, Sodena behin baino gehiagotan saiatu zen sustatzaile nagusiarekin harremanetan jartzen, enpresaren egoera ezagutzeko eta zegozkion ordainketak egitea eskatzeko, baina ez zuen harremanetan jartzea lortu.

2023ko urtarrilean, amortizazio- eta interes-kuota bat mugaeguneratu zen, baina enpresak hori ere ez zuen ordaindu. Ordaindu gabeko printzipalaren kuota 7.500 eurokoa zen, eta 2022ko bigarren seihilekoari zegozkion interesak 769,02 eurokoak ziren.

Sodena berriro saiatu zen sustatzailearekin harremanetan jartzen, hainbat bidetatik, baina ez zuen erantzunik jaso.

Egoera ikusita, Sodena kabinete juridiko batekin jarri zen harremanetan, egiten ahal ziren ekintza judizialak baloratzeko.

Zordunaren kaudimengabezia egoera eta maileguaren partaidetza-izaera kontuan hartuta, ondorioztatu zen ez zela komeni demanda batek eskatzen zituen gastu judizialak sortzea, kreditua ez berreskuratzeko aukera izanda.

Abokatuek emandako gomendio legalak aintzat hartuta, ekintza legalak egiteko erabakia atzeratzea eta hurrengo kuota mugaeguneratu arte itxarotea erabaki zen, zorra erreklamatzeko burofax formal bat bidaltzeko.

Estudios Melitón enpresak hartzekodunen konkurtsoa aurkeztu zuen 2023ko apirilaren 24an.

Hasiera batean, eta konkurtsoaren ezaugarriak kontuan hartuta, hartzekodunei ez zitzaien beren kredituak jakinarazteko deitu, eta pasiboaren gutxienez ehuneko bosta ordezkatzen zuten hartzekodunei dei egin zitzaien, hamabost eguneko epean konkurtso administratzaile bat izendatzeko eskaera egin zezaten. Administratzaile horrek txosten arrazoitua eta dokumentatua aurkeztu beharko zuen, KLTBren 37 ter artikuluan jasotako alderdiei buruzkoa.

Sodenak egoera baloratu zuen bere kabinete juridikoarekin, eta konkurtso administratzaile bat izendatzea ez eskatzea erabaki zuen, ez baitzegoen legeak xedatzen dituen kasuen zantzurik. Kontuan hartu zen enpresak ez zuela aktibo bihurgarririk, eta konkurtso administratzaileak txosten hori egiteagatik jasoko zuen ordainsaria izendapena eskatu zuten hartzekodunen kontura izanen zela. Sodenako lege aholkularitzak pentsatu zuen ez zegoela ia aukerarik hartzekodunek konkurtso administratzailearen izendapena eskatzeko, Sodenak erabilitako argudio berberengatik, eta hala izan zen.

Legeak 15 eguneko epea ezartzen du hartzekodunek konkurtso administratzailearen izendapena eska dezaten.

Hartzekodunen batek konkurtso administratzailea izendatzea eskatu izan balu, eta epaileak, hark emandako txostena ikusita, aurreko alderdiei buruzko zantzuak daudela ikusi izan balu, auto osagarri bat eman izanen litzateke, eta, horren bidez, hartzekodunei dei egin izanen litzaieke, hilabeteko epean beren kredituen berri emateko.

Hartzekodunek ez zuten izendapenik eskatu, eta, beraz, ez zen kredituen berri emateko deialdirik egin. Epaitegiak 2023ko ekainaren 26an eman zuen konkurtsoa amaitzeko autoa.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 18an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

# 11-25/PES-00083. Galdera, Nafarroako Etxebizitza Hutsen Erregistroa berrabiarazteari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak Nafarroako Etxebizitza Hutsen Erregistroa berrabiarazteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 28ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak 11-25/PES-00083 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak nola berrabiaraziko du Nafarroako Etxebizitza Hutsen Erregistroa?

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak ez du desaktibatu Nafarroako Etxebizitza Hutsen Erregistroa; martxan dago gaur egun.

Zer sistema ezarriko du Nafarroako Etxebizitza Hutsen Erregistroa urtero eguneratu dadin eta, hartara, bere helburua bete dadin?

Etxebizitza Hutsen Erregistroa urtero eguneratzen da, finantza erakundeek eta haien higiezin filialek, aktiboak kudeatzeko erakundeek (banku berregituratzetik datozenak barne) eta higiezin erakundeek ematen duten informazioa egiaztatu ondoren.

Era berean, banan-banakako eguneratzea egiten da erregistroko inskripzioa ezeztatzeko eskaera baten aldeko ebazpena ematen den bakoitzean.

Nola bilduko dira etxebizitza hutsei buruzko datuak Nafarroako herri guztietan?

Hutsik egon daitezkeen etxebizitzei buruzko datuen bilketa lortzeko, etxebizitzen jabeei buruzko Ogasunaren datuak eta etxebizitzen ur-kontsumoari buruzko datuak gurutzatzen dira. Gaur egun, etxebizitzen kontsumo elektrikoari buruzko datuak sartzeko aukera aztertzen ari gara. Horri dagokionez, jakinarazi da Etxebizitza Zuzendaritza Nagusia aplikazio informatiko berri bat ezartzeko lanean ari dela aipatutako datuen azterketa errazteko eta, beraz, etxebizitza hutsak deklaratzeko lana errazteko.

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuak zer denbora aurreikusten du Nafarroako Etxebizitza Hutsen Erregistroa berrabiarazteko?

Lehenbiziko galderaren erantzunean azaldu den bezala, ez da beharrezkoa Nafarroako Etxebizitza Hutsen Erregistroa berraktibatzea, ez baita inoiz desaktibatu.

Era berean, jakinarazi da hirugarren galderan aipaturiko aplikazio informatikoa eskuragarri egonen dela ahalik eta lasterren.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 18an

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

# 11-25/PES-00084. Galdera, pandemian zehar Nafarroako enpresak NBEz hornitzeko ekimenari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak pandemian zehar Nafarroako enpresak NBEz hornitzeko ekimenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 28ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du pandemian Nafarroako enpresei NBEak emateko ekimenari buruz (11-25/PES-00084). Hona Nafarroako Gobernuaren Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. SODENAk eta Albyn Medical-ek sinatutako “Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenaren” zioen azalpeneko IV. puntuan esaten da Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren ekimena izan zela, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren bitartez, Nafarroako enpresak NBEez hornitzea; SODENAk eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak sinatutako akordioaren arabera, berriz, ekimena Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuarena ez beste inorena izan zen. Zergatik?

2. Nafarroako Gobernuaren ustez, norena izan zen ekimena, departamentuarena ez beste inorena ala departamentuarena Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren bitartez?

Sodenak Albyn Medicalekin eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarekin sinatutako transakzio akordioen zioen azalpenek eduki desberdina dute, erakunde horietako bakoitzak sinatutako hitzarmenaren arabera proiektuan duen parte-hartzearen berezitasunera egokitzeko. Nolanahi ere, zioak koherenteak dira elkarren artean.

2020ko apirilean, Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak ekimen publiko bat sustatu zuen lurralde horretako enpresa eta elkarte guztiak NBEz hornitzeko, osasun larrialdiko egoera larria zegoelako, eta NBEen falta handia merkatuan. Aipatutako departamentuak enpresa eta elkarteei laguntzeko ekimen hori Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren bitartez gauzatzea proposatu zuen. Hasierako hitzarmenaren VII. zioan jasotakoaren arabera, konfederazioak bere burua eskaini zuen enpresen eskaria koordinatzeko eta NBEen erosketan bitartekari izateko. Albyn Medicali erosi zizkion NBEak, gero enpresei entregatzeko.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 18an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

# 11-25/PES-00085. Galdera, SODENAren eta Albyn Medical-en arteko "Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenari" buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, SODENAren eta Albyn Medical-en arteko "Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenari" buruzkoa, 2025eko otsailaren 28ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du SODENAk eta Albyn Medicalek sinatutako "Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmena"-ri buruz (11-25/PES-00085). Hona Nafarroako Gobernuaren Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. SODENAk eta Albyn Medical-ek sinatutako "Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenaren" zioen azalpeneko V. puntuan esaten da SODENA konprometitu zela "interesik gabe finantzatzera, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren kontura, Albyn Medical-i funtsak aurretiaz ematea, NBEak erosteko"; SODENAk eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak sinatutako akordioaren arabera, berriz, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioa irabazi asmorik gabeko laguntzaile hutsa izan zen, NBEak banatzeko kanala abian jartzeko. Zergatik?

Sodenak Albyn Medicalekin eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarekin sinatutako transakzio akordioen zioen azalpenek eduki desberdina dute, erakunde horietako bakoitzak sinatutako hitzarmenaren arabera proiektuan duen parte-hartzearen berezitasunera egokitzeko. Nolanahi ere, zioak koherenteak dira elkarren artean.

Akordioaren arabera, Albyn Medicalek konpromisoa hartu zuen NBEak eskuratzeko merkatu nazionalean edo nazioartekoan, Sodenaren finantzaketarekin, Nafarroako enpresa eta elkarteei emateko. Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak konpromisoa hartu zuen kanal hori abian jartzen laguntzeko, irabazi-asmorik gabe, eta langileak babesteko beharra zuten enpresa eta elkarteekin hitz egiteaz arduratu zen. Lankidetza horren barruan, besteak beste, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak komunikatutako beharrak biltzeko zeregina zuen, eta horien arabera Sodenak finantzaketa emanen zuen, NBEak erosteko.

2. Nafarroako Gobernuaren ustez, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren kontura egin zen ala hori laguntzaile hutsa izan zen?

Sodenak Albyn Medicalekin eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarekin sinatutako transakzio akordioen zioen azalpenek eduki desberdina dute, erakunde horietako bakoitzak sinatutako hitzarmenaren arabera proiektuan duen parte-hartzearen berezitasunera egokitzeko. Nolanahi ere, zioak koherenteak dira elkarren artean.

Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak konpromisoa hartu zuen kanal hori abian jartzen laguntzeko, irabazi-asmorik gabe, eta langileak babesteko beharra zuten enpresa eta elkarteekin hitz egiteaz arduratu zen. Lankidetza horren barruan, besteak beste, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak komunikatutako beharrak biltzeko zeregina zuen, eta horien arabera Sodenak finantzaketa emanen zuen, NBEak erosteko.

3. Albyn Medical-ekiko akordioaren V. puntuaren arabera, maskarak erosi ziren "gero Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioari emateko", baina Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarekiko akordioaren arabera, berriz, Albyn-ek erosi zituen eta zuzenean, bitartekaririk gabe, eman zizkien enpresei. Zergatik?

4. Nafarroako Gobernuaren ustez, NBEak Albyn-ek Nafarroako Enpresaburuen Konfederaziori eman zizkion ala zuzenean eman zizkien Albyn-ek enpresei?

3. eta 4. puntuei emandako erantzunak: Sodenak Albyn Medicalekin eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarekin sinatutako transakzio akordioen zioen azalpenek eduki desberdina dute, erakunde horietako bakoitzak sinatutako hitzarmenaren arabera proiektuan duen parte-hartzearen berezitasunera egokitzeko. Nolanahi ere, zioak koherenteak dira elkarren artean.

2020ko maiatzaren 7ko lankidetza-hitzarmenean ezarritako jarduteko modua, Nafarroako Kontuen Ganberak 2022ko abenduaren 16an eginiko “Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenari buruzko fiskalizazio txostena” agirian ere jasota dagoena (5. orrialdea), honako hau izan zen, laburbilduta:

- Albyn Medicalek merkatu nazionalean edo nazioartekoan NBEak erosteko konpromisoa hartu zuen, Sodenaren finantzaketarekin, eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioari (CEN) salduko zizkion.

- Albyn Medicalek CENi jakinarazi behar zizkion erositako NBE guztiak edo batzuk jasotzeko aurreikusitako data, Albyn Medicalen salneurria eta NBEen zehaztapen teknikoak.

- Enpresen eta elkarteen eskaeraren agindu formala jaso ondoren, CENek eskaera bakoitzari zegokion faktura egin behar zuen; faktura ematean ordaindu behar zuen enpresak edo elkarteak, eta, beranduenez, faktura jaso eta hurrengo hiru (3) egun baliodunen barruan.

- CENek enpresen eta elkarteen izenean egindako faktura guztiak kobratu ondoren, horren berri eman behar zion Albyn Medicali, zeinak faktura egin behar zuen CENen izenean.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 18an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

## 11-25/PES-00086. Galdera, SODENAren eta Albyn Medicalen arteko “Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenaren” zioen azalpeneko VI. puntuari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, SODENAren eta Albyn Medicalen arteko “Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenaren” zioen azalpeneko VI. puntuari buruzkoa, 2025eko otsailaren 28ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du SODENAk eta Albyn Medicalek sinatutako “Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmena”-ren zioen azalpeneko VI. puntuari buruz (11-25/PES-00086). Hona Nafarroako Gobernuaren Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. SODENAk eta Albyn Medical-ek sinatutako "Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenaren” zioen azalpeneko VI. puntuan esa-

ten da NBEen soberazko stocka gertatu zela "Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak bere enpresen interesak asetzeko beharrezkotzat jo zituenak baino NBE gutxiago erosi zuelako"; baina SODENAk eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak sinatutako akordioaren arabera, berriz, stocka gertatu zen "horiek izenpetzean aurreikusi ezin ziren zenbait gertakari izan zirelako bat-batean". Zergatik?

2. Nafarroako Gobernuaren ustez, arrazoi bi horietako zeinek eragin zuen stocka?

Sodenak Albyn Medicalekin eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarekin sinatutako transakzio akordioen zioen azalpenek eduki desberdina dute, erakunde horietako bakoitzak sinatutako hitzarmenaren arabera proiektuan duen parte-hartzearen berezitasunera egokitzeko. Nolanahi ere, zioak koherenteak dira elkarren artean.

Alderdiek 2020ko maiatzaren 7an akordioa sinatu zutenean arrazoiz espero zezaketenaren oso bestelakoa izan zen haren betearazpena, hasiera batean aurreikusi ezin ziren hainbat gertakari gertatu zirelako. Hitzartutako lankidetzaren barruan, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioa arduratu zen osasun larrialdiko eta NBEen hornidurarik gabeko egoera larrian zeuden enpresek eta elkarteek jakinarazitako beharrak biltzeaz, eta, balioespen horren arabera, Albyn Medicalek eskaera egin zuen. Hala ere, NBEak erosi ondoren, enpresen eta elkarteen beharra Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak hasieran jakinarazitakoa baino txikiagoa izan zen; izan ere, inguruabarren aldaketak aukera eman zuen beharrak merkatuan asetzeko, ezarritako kanaletik kanpo, NBEen gehiegizko eskaintza zegoenean. Hasierako aurreikuspenaren, enpresen eta elkarteen geroko beharren eta aurreikusitakoa baino askoz ere salmenta txikiagoen arteko aldeak eragin zuen soberakina. Hala jasotzen da Nafarroako Kontuen Ganberak 2022ko abenduaren 16an egindako "Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenari buruzko fiskalizazio txostena" agiriaren 6. orrialdean.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 18an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

## 11-25/PES-00087. Galdera, SODENAren eta Albyn Medicalen arteko "Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenaren" zioen azalpeneko VIII. puntuari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, SODENAren eta Albyn Medicalen arteko "Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenaren" zioen azalpeneko VIII. puntuari buruzkoa, 2025eko otsailaren 28ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du SODENAk eta Albyn Medicalek sinatutako "Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmena"-ren zioen azalpeneko VIII. puntuari buruz (11-25/PES-00087). Hona Nafarroako Gobernuaren Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. SODENAk eta Albyn Medical-ek sinatutako "Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko

lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmena"-ren zioen azalpeneko VIII. puntuan esaten da akordioan ez dagoela zehaztuta nola esleitu edo banatu "enpresek NBEak horretarako ezarri den kanaletik kanpo erostearen aldeko apustua egin izanaren ondorioz" sortutako galerak; SODENAk eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak sinatutako akordio beraren VII. puntuaren arabera, berriz, akordioaren arautze gabeziak ez dauka zerikusirik apustu horrekin, baizik eta NBEak merkatuko prezioak laster batean izan zirena baino askoz ere garestiago erosi izanarekin. Zergatik?

Sodenak Albyn Medicalekin eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarekin sinatutako transakzio akordioen zioen azalpenek eduki desberdina dute, erakunde horietako bakoitzak sinatutako hitzarmenaren arabera proiektuan duen parte-hartzearen berezitasunera egokitzeko. Nolanahi ere, zioak koherenteak dira elkarren artean.

Hitzarmenak erregulazio hutsune bat zuen, hain zuzen ere gertatu zenari buruzkoa; hau da, proiektuan sortutako galera alderdien artean esleitzeari edo banatzeari buruzkoa. Laster batean merkatuko prezioak izan zirena baino askoz garestiago erositako NBEen gehiegizko stockak eragin zuen galdera hori, hain zuzen ere. Inguruabarrak aldatu ondoren, enpresek eta elkarteek merkatuko beren beharrak ase ahal izan zituzten, ezarritako kanaletik kanpo, merkatuan NBEen gehiegizko eskaintza egon zenean. Hasierako aurreikuspenaren eta enpresen eta elkarteen geroko beharren arteko aldeak eragin zuen soberako stocka.

2. Nafarroako Gobernuaren ustez, nondik heldu dira galerak?

Une hartan aurreikusi ezin zen gertaera baten eraginez soberako stocka egotearen ondorio izan zen galera; izan ere, NBEen hornidura faltatik gehiegizko eskaintzako egoerara igaro zen merkatua. NBEak prezio jakin batean erosi ziren, eta zenbait hilabeteren buruan, merkatukoak baino askoz garestiagoak ziren.

Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarekiko akordioaren VII. puntuan, proiektuaren galeren kontzeptu gisa zera agertzen da: "Albyn Medical SLk bere gain hartutako gastuak, erosketari, inportazioari, zaintzari eta jagoletzari dagozkienak (80.843,68 euro)". Kontzeptu horiek eta zenbateko hori zergatik ez ziren sartu galera gisa Albyn-ekiko hitzarmenean?

Albyn Medicalekin sinatutako likidazio akordioan berariaz sartu ziren proiektuaren gastuen artean "besteak beste, ... Albyn Medicalek bere gain hartutako gastuak, erosketari, inportazioari, zaintzari eta jagoletzari dagozkienak, bai eta etorkizunean soberako stocka edukitzeari dagozkionak ere" (VIII. zioa). VIII. zio horretan, halaber, galera gisa aipatzen da Albyn Medicalek bere zerbitzuak emateagatik marjina kobratzeari uko egitea, jatorrizko akordioaren 1.2.1 klausularen arabera. Hori dela eta, zuzena litzateke adieraztea 80.843,68 euroko zenbatekoa galera izan zela Albyn Medicalentzat; izan ere, erosketa prezioaren gainean % 3,5eko marjina aplikatzearen (egindako salmentengatik kobratutakoa kenduta) eta aurre egin behar izan zien erosketa kostuen arteko aldeari dagokio.

4. Albyn Medical SLk gastu horien justifikaziorik aurkeztu al du? Hala baldin bada, erantzunarekin batera ematea eskatzen du.

Albyn Medicalek aurkeztu zuen soberako stockaren erosketan, inportazioan, zaintzan eta jagoletzan egindako gastuen justifikazioa.

Zenbateko horiei buruzko justifikazioa talde parlamentario eskatzailearen esku dago; izan ere, Parlamentuko zenbait ekimeni erantzuteko bidali zen, eta horren xehetasuna Nafarroako Kontuen Ganberak 2022ko abenduaren 16an egindako "Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenari buruzko fiskalizazio txostena" agirian ere jasotzen da, 19., 22. eta 30. orrialdeetan.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 18an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

# 11-25/PES-00088. Galdera, jakiteko zer irizpide baliatu den ezartze aldera zer zenbateko hartu duten beren gain Albyn Medicalek eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak adiskidetasunez likidatzeko "NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenean” SODENArekin ezarritako lotura

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, jakiteko zer irizpide baliatu den ezartze aldera zer zenbateko hartu duten beren gain Albyn Medicalek eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak adiskidetasunez likidatzeko "NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenean” SODENArekin ezarritako lotura, 2025eko otsailaren 28ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du “NBEak erosteko lankidetzarako eta laguntza finantzariorako hitzarmena” delakoaren esparruan SODENArekiko beren gain hartutako lotura adiskidetasunez likidatzeko Albyn Medicalek eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak beren gain hartu duten zenbatekoa zehazteko irizpideei buruz, (11-25/PES-00088). Hona Nafarroako Gobernuaren Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Zer irizpide baliatu da ezartze aldera zer zenbateko hartu duten beren gain Albyn Medicalek eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak adiskidetasunez likidatzeko “Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenean” SODENArekin ezarritako lotura?

2020ko maiatzaren 7ko hitzarmenak interes publikoko afera bat asetzeko helburua zuen (Nafarroako langileen babesa), Albyn Medicalen eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioren lankidetzarekin. Proiektuak sortutako galera ekonomikoan Albyn Medicalek eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak zuten partaidetza finkatzeko, Nafarroako Kontuen Ganberaren fiskalizazio-txostenean ezarritako baldintzak hartu ziren kontuan, eta, bereziki, alderdi bakoitzak 2020ko maiatzaren 7ko lankidetza-hitzarmenaren bidez lortu nahi zen helburua betetzeko zuen interes zehatza. Proiektuko galeran izandako partehartzearen zenbatekoak esleitu dira, arrazoizkotasun-irizpideari jarraikiz, lankidetza-hitzarmenaren interes publikoa dela-eta. Albyn Medicalek eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak NBEak erosteko kanala abian jartzen lagundu zuten osasun-larrialdiko egoera larrian geundenean eta merkatuan NBEen hornidura-falta zegoenean.

2. Zer irizpide baliatu da ezartze aldera nola ordaindu Albyn Medicalek eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak beren gain hartutako zenbatekoak, adiskidetasunez likidatzeko “Pandemian enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmenean” SODENArekin ezarritako lotura?

Ezarritako ordaintzeko moduari esker, Albyn Medicalek eta Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak beren gain hartu zuten zegozkien galeren parte-hartzea, beren finantza-gaitasuna arriskuan jarri gabe, eta, horrela, adostutako ordainketak Sodenari garaiz ordaintzea bermatu zen.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 18an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

# 11-25/PES-00089. Galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikara bideratutako giltzurruneko transplanteei buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak Nafarroako Unibertsitate Klinikara bideratutako giltzurruneko transplanteei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 28ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak informazio eskaera egin du (11-25/PES-00089) Nafarroako Klinika Unibertsitarioarekin sinatutako osasun-arretako prestaziorako kontratua berritzeari buruz. Ospitalizazio, kanpo-kontsulta, miaketa diagnostiko, tratamendu berezi, prozesu kirurgiko eta transplanteei buruzkoa da kontratua. Hona Nafarroako Gobernuaren Osasun kontseilariak ematen duen informazioa:

2024an zenbat pertsona bideratu dira Nafarroako Klinika Unibertsitariora giltzurruneko transplantea egiteko? Zehaztu zein zen pertsona horietako bakoitzaren larritasuna (G1-G2-G3-G4) eta Nafarroako Klinika Unibertsitariora bideratutako giltzurruneko transplante-prozedura bakoitzaren kostua.

Prestazio eta Itunen Kudeaketarako Zerbitzuan eskuragarri dagoen informazioaren arabera, Nafarroako Klinika Unibertsitariora egindako bideratzeei eta haren fakturazioari dagokienez, eta, zehazki, 2024an egindako giltzurruneko transplanteei dagokienez, honako informazio hau ematen da:

1. 2024an, 46 paziente bideratu dira giltzurruneko transplantearen itxaron-zerrendan sartzeko balorazioa egiteko.

2. Aldi horretan, giltzurruneko 57 transplante egin dira; horietatik, 45 pertsona 2024a baino lehen bideratu ziren balorazioa egiteko, eta 12 pertsona, 2024an, eta urte horretan bertan egin zitzaien transplantea.

3. Nafarroako Klinika Unibertsitarioaren eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren artean indarrean dagoen kontratuaren arabera, “giltzurruneko transplantearen” prozeduraren kostua 40.827,27 eurokoa da; tarifa horren barruan sartzen dira lehen kontsulta, transplantea bera eta transplantea egin osteko sei hilabeteetan pazienteek behar dituzten laguntzak.

4. Larritasunaren kalifikazioari buruzko galderari dagokionez, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Nefrologia Zerbitzuko buruak jakinarazi duenez, giltzurruneko transplantea egitea baloratzeko bideratutako paziente guztiak G5 taldean sartuko lirateke.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 13an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

# 11-25/PES-00090. Galdera, Artaxoako San Saturnino eliza zaharberritzeko obretarako dirulaguntzei buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Artaxoako San Saturnino eliza zaharberritzeko obretarako dirulaguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 28ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Arazi Flamarique jaunak 11-25/PES-00090 galdera idatzia egin du Nafarroako Gobernuak Artaxoako San Saturnino eliza zaharberritzeko obretarako egin duen ekarpen ekonomikoari buruz. Hau da Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

**Artaxoako San Saturnino eliza zaharberritzeko obrak**

| | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 |
|---|---|---|---|---|
| Barnealdea zaharberritzea, 2. fasea | 234.421,63 € | | | |
| Barnealdea zaharberritzea, 3. fasea (besteren finantziazioa, Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa) | | 612.270,21 € | | |
| Barnealdea zaharberritzea, 4. fasea (besteren finantziazioa, Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa) | | | 705.417,32 € | |
| Ingurua urbanizatzea (besteren finantziazioa, Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa) | | | 676.374,14 € | |
| Barnealdea zaharberritzea, 4. fasea (besteren finantziazioa, Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa) | | | | 238.623,14 € |
| Instalazio elektrikoaren zuzendaritzaren zenbatekoa (barnealdea zaharberritzea, 4. fasea) VPE-KZN | | | | 1.624,00 € |
| Ingurua urbanizatzea (besteren finantziazioa, Nafarroako Ondare Historikoa Zaintzeko Fundazioa) | | | | 108.670,07 € |
| Instalazio elektrikoaren zuzendaritzaren zenbatekoa (ingurua urbanizatzea) VPE-KZN | | | | 2.697,00 € |
| **2006-2009 urteetako zenbatekoa, guztira** | | | | **2.580.097,51 €** |

Zerbitzuan ez daukagu informaziorik egindako azken galderari zehaztasunez erantzuteko. Jasota daude, ordea, bi argitalpen: *San Saturnino de Artajona* eta *El cerco de Artajona. Guerra, arte y devoción.*

Era berean, urte haietako prentsako artikuluren batean aipatzen da ate irekien hilabete bat antolatu zela birgaitzea gertutik ezagutzeko, bisita gidatuak egiteaz gain.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 17an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

# 11-25/PES-00091. Galdera, Albyn Medical enpresari jasanarazitako BEZari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak Albyn Medical enpresari jasanarazitako BEZari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 28ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Albyn Medicali jasanarazitako BEZari buruz (11-25/PES-00091). Hona Nafarroako Gobernuaren Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

SODENAk, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak eta Albyn Medical-ek lankidetzarako eta finantza-laguntzarako hitzarmen bat sinatu zuten, enpresa txiki eta ertain, mikroETE eta langile autonomoentzat NBEak erosteko pandemian. Hitzarmen haren ondorioz SODENAren eta Albyn Medicalen artean sortu zen lotura adiskidetasunez eta behin betiko hausteko akordioaren 1 i) puntuan adierazten da Albyn Medicalek 136.338 euro ordainduko dizkiola SODENARI, Albyn Medicalek akordioaren arabera erositako NBEen BEZa, hain zuzen ere, Albyn Medicalek diru-kopuru horri zegokion kenkaria aplikatu baitzuen, Albyn Medical-ek NBEak emateagatik hirugarrenei jasanarazitako BEZaren zenbatekoan murriztuta.

1. Zenbat diru zegoen kontu horretan puntu horretako bigarren paragrafoan aipatzen den transferentzia egin aitzin?

34 euro.

2. Zenbat diru gelditu zen transferentzia egin ondotik?

136.372,03 euro.

3. Kontu horrek irekita jarraitzen al du? Irekita jarraitzen baldin badu, zenbat diru dauka? Irekita ez baldin badago, noiz itxi zen eta nola likidatu zen bertan zegoen dirua?

Kontua 2023ko maiatzaren 23an itxi zen, eta zenbatekoak Sodenaren Caixabankeko kontura transferitu izan ziren ordura arte; hala, 22,03 euroko saldoa gelditu zen, eta hori ere transferitu zen likidazioa egin zen unean.

Likidazio horien xehetasunak eranskin gisa erantsi dira.

4. Maskarak erosteagatik Albyn Medical-ek kendutako dirua zergatik zegoen SODENAren eta Albyn Medical-en arteko kontu komun batean?

Hala jaso zen 2020ko maiatzaren 7ko hasierako hitzarmenaren (“Lankidetzarako eta zubilaguntza finantzariorako hitzarmena, ETE, mikroETE eta autonomoentzat babes materiala (NBE) erosteko”) bigarren klausulan. Hobe jarduteko gomendatu zen, eta alderdiek konpromisoa hartu zuten hitzarmenaren eragiketetarako soilik erabiltzeko. Klausula horretan bertan jaso zen aurreko galderan aipatutako baliogabetzea.

5. SODENAk zergatik pentsatu du Albyn Medical-ek BEZa dela-eta kendutako dirua –NBEak erostean hirugarrenei jasanarazitako zenbatekoan murriztua– SODENArendako galera ekonomiko bat dela, konpentsatu beharrekoa?

Albyn Medicalekin sinatutako likidazio hitzarmenean, ez da jotzen 136.338 euroko zenbatekoa, “Albyn Medicalek hitzarmena betez erositako NBEen BEZaren baliokidea, eta Albyn Medicalek NBEak erostean hirugarrenei jasanarazitako BEZaren zenbatekoan murriztua”, galera ekonomikoa denik Sodenarentzat, konpentsatu beharrekoa. Albyn Medicalek Sodenari ordaintzeko konpromisoa hartu zuen, proiektuak sortutako galera ekonomikoan parte hartzeko modu gisa. Eta horixe adierazten da, halaber, Nafarroako Kontuen Ganberak 2022ko abenduaren 16an egindako “Pandemian ETE, mikroETE eta autonomoentzat NBEak erosteko lankidetzari eta laguntza finantzarioari buruzko fiskalizazio txostena” agirian, 23. orrialdean; izan ere, ezartzen da zenbateko hori kontuan hartu beharko dela Sodena eta Albyn Medicalen arteko finantzaketaren erregulazioan.

6. Hori al da antzeko beste kasu batzuetan hartu ohi den erabakia, erositakoa saldu ezin izan dela-eta kendutakoa jasanarazi ezin izan denean?

Ez dago antzeko aurrekaririk, eta, beraz, ezin diogu galdera horri erantzun.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 18an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

(Oharra: Aipatu eranskinak foru parlamentarien eskura daude Parlamentuaren kudeaketarako Ágora sisteman).

## 11-25/PES-00092. Galdera, Nasuvinsak eta Nafarroako udalek etxebizitza publikoa sustatze aldera sinatutako hitzarmenei buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak Nasuvinsak eta Nafarroako udalek etxebizitza publikoa sustatze aldera sinatutako hitzarmenei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 7ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin du (11-25/PES-00092). Hona hemen eskatu duena:

• Etxebizitza publikoa sustatze aldera Nasuvinsaren eta Nafarroako udalen artean sinatutako zenbat hitzarmen zeuden indarrean, guztira, 2025eko otsailaren 1ean?

• Nasuvinsak hitzarmen horietakoren bat baliorik gabe uztea aurreikusten al du?

• Hala baldin bada, zeintzuk utziko ditu baliorik gabe? zergatik?

Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

2025eko otsailaren 1ean, etxebizitza publikoa sustatzeko 43 hitzarmen zeuden sinatuta Nasuvinsaren eta Nafarroako udalen artean.

Nasuvinsak ez du baliorik gabe utzi hitzarmen horietako bakar bat ere, baina horietako bost geldirik daude: Hiru dagokion udalek hala eskatu dutelako; beste bietako bat erregistroko arazo batengatik, eta bestea lurzatiak ez duelako sarbide zuzenik.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 25ean

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

# 11-25/PES-00093. Galdera, Barañainen zahar-etxe publiko bat sortzeari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak Barañainen zahar-etxe publiko bat sortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 28ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Zurekin Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak 11-25/PES-00093 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako honi buruz:

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak jaso al du Barañaingo Udalaren edo kongregazio erlijioso horren proposamen edo eskaririk, aipatu lekuaren etorkizunari buruz hitz egiteko?

Hona Nafarroako Gobernuaren Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak ez du jaso leku horretan egoitza bat sortzeko eskaera proposamenik, ez udalaren aldetik, ez aipatutako kongregazioaren aldetik.

Duela urte batzuk, desgaitasunaren arloko gizarte erakunde batek proiektu bat aurkeztu zigun leku horretan adinekoentzako eguneko zentro bat sortzeko, eta kongregazioak une hartan gune horretan komunitateari zerbitzua emateko zituen ideiak helarazi zizkigun. 2020tik ez da horri buruz ezer gehiago jakin.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 25ean

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

# 11-25/PES-00094. Galdera, lurralde-berrikuntzako bi zentro berriei buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mario Fabo Calero jaunak lurralde-berrikuntzako bi zentro berriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 7ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mario Fabo Calero jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du lurralde berrikuntzako bi zentro berriei buruz (11-25/PES-00094). Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa:

Zer lokal edo eraikinetan paratuko da zehazki zentro bakoitza?

Nafarroako Lurralde Berrikuntza Zentroa zentro bakarra izanen da, eta bi egoitza izanen ditu. Egoitza horiek Zangozan eta Lizarraldean egonen dira, eta beren eskualdeei emanen diete zerbitzua.

Hainbat lokal eta eraikin aztertzen ari gara, ikuspegi tekniko eta ekonomikotik egokienak direnak aurkitzeko, eta tokiko erakundeekin harremanetan gaude horretarako.

Zer egunetan aurreikusten da horiek irekitzea?

2025ean, Lurralde Berrikuntza Zentroa (LBZ) diseinatzeko eta abian jartzeko fasea garatuko da. Horregatik, eta egoitza fisikorik ez duen arren, Lurralde Berrikuntza Zentroa lanean ari da bere gobernantza zehazteko eta lurralde eragileekin jarduketa ildoak adosteko bi lurraldeetako bakoitzean. Egoitzak irekitzea beharrezko obrak edo egokitzapenak egitearen mende egonen da.

Zer aurrekontu izanen du zentro bakoitzak?

Lurralde Berrikuntza Zentroak 654.477,25 euroko aurrekontua izanen du 2025eko ekitaldirako, bi egoitzetarako. Ez da banakapenik egin egoitza bakoitzerako.

Zer baliabide izanen du zentro bakoitzak?

Zentro bakoitzak izanen dituen baliabide eta bitarteko materialak gobernantza organoetan adosten diren jarduketa ildoen arabera zehaztuko dira.

Zer langile izanen du esleiturik zentro bakoitzak? Zehaztu bai langile kopurua, bai langile mota.

Navarra de Servicios y Tecnologías SAU sozietate publikoari eskatu zaio Lurralde Berrikuntza Zentroa diseinatzeko eta abian jartzeko laguntza teknikoko lanak egiteko. Nasuvinsa enpresa publikoarekin lankidetzan eginen dira lan horiek.

LBZ diseinatzeko eta abian jartzeko fasean (2025ean eginen da), Nasertic eta Nasuvinsako langileek lanaldi partzialean lan eginen dute enkargu honetan, eta proiektuaren diseinua egiteko haien ezagutza eta esperientzia erabiliko dituzte. Zehazki, Naserticen aldetik:

·Lanaldi partzialeko arloko arduradun bat, proiektua gainbegiratzeko, diseinu estrategikoa egiteko eta lidergo optimoa izateko.

·Proiektuak kudeatzeko espezialista bat. LBZ in situ koordinatzeaz arduratuko da, bai eta proiektua maila sozialean zein berrikuntzari begira garatzeaz ere, eta zentroko ekosisteman integratuko da, aukera berriak detektatzeko, garatzeko eta ezartzeko, gizarte berrikuntzako/ekintzailetzako/teknologiako/azpiegituretako proiektu berrietarako zaintza estrategikoa egiteko eta gune guztiak kudeatzeko.

·Proiektuak kudeatzeko teknikari bat, proiektuen eta LBZren eguneroko kudeaketaz arduratuko dena.

·Komunikazioko teknikari bat, LBZ abiarazteko eta lurraldean jada martxan dagoen ekosisteman finkatzeko aurreikusten diren komunikazio ekintzak asmatzeko, garatzeko eta inplementatzeko.

·IKT espezialista bat, obretan eta eraikuntzan esperientzia handia duena, gune berriak ahalik eta hobekien egokitzeko.

Nasuvinsaren aldetik:

·Arloko arduradun bat, proiektuaren diseinu estrategikoari eta lidergo optimoari laguntzeko.

·Lurralde garapen jasangarriko bi teknikari, esperientzia handikoak eta bi eremuen ezagutza handia dutenak, gobernantza zehazteko eta abian

jartzeko, lurraldeko erronkak detektatzeko eta RedCIT nazionalarekin harremanetan jartzeko.

Zeintzuk dira bi zentro horietan eginen diren proiektu nagusiak?

Proiektuak zehazteke daude, LBZko gobernantza organoek, LBZko kontseiluak eta LBZko ekosistemak egin beharreko zehaztapenaren zain.

Harremanik izan al da eskualdeko toki-entitateekin zentroak irekiko direla informatzeko? Haiekin harremanik izan baldin bada, noiz eta norekin izan ziren?

Baieztatu da Nasertic eta Nasuvinsa enpresa publikoek, Lurralde Kohesiorako Departamentuko Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak egindako enkargua inplementatzeko, honako harreman hauek izan dituztela toki-erakundeekin, honako egun hauetan:

- Lizarrako Udala: 2025/02/21 eta 2025/03/19

- Jurramendiko Mankomunitatea: 2025/03/19

- Lizarraldeko udalerri guztiak LBZ aurkezteko jardunaldira gonbidatu dira. 2025eko martxoaren 27an eginen da, Jurramendiko Mankomunitatean (2025/03/20an bidali zen gonbidapena).

- Zangozako Udala: 2025/02/13 eta 2025/02/26

- Zangozako Mankomunitatea: 2025/02/27

- Zangozako eskualdeko udalerri guztiak LBZ aurkezteko jardunaldira gonbidatu ziren (2025/02/28an). Jardunaldia 2025eko martxoaren 7an egin zen, Zangozako Karmengo Entzutegian.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 25ean

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

# 11-25/PES-00095. Galdera, Baztan Bidasoa Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Baztan Bidasoa Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 7ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak 11-25/PES-00095 galdera egin du Baztan-Bidasoako HTJPko funtsak esleitzeko irizpideei buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

“Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Estrategia” dokumentuaren azken bertsioa Turismoko Estatuko Idazkaritzaren egoitza elektronikoan argitaratuta dago, eta dokumentu horretan xehe azaltzen dira Turismo Jasangarritasuneko Planen garapena eta betearazpena osatzen duten elementu eta osagai guztiak.

https://sede.serviciosmin.gob.es/eu-es/procedimientoselectronicos/paginas/detalle-procedimientos.aspx?idprocedimiento=253

Dokumentu horren 8. apartatuan (Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Lurralde Planak), 8.1.1 puntuan, honako hau zehazten da:

8.1.1. Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planak (HTJP).

Helmuga bakoitzeko tokiko erakundeek diseinatu eta gauzatu beharreko planak dira. Helmugen arazoak konpontzeko helburua izanen dute, baldin eta estrategia honetan ezarritako helburuekin eta turismoaren arloko estatuko eta autonomia erkidegoetako dokumentu estrategikoekin lotuta badaude.

Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planen ezohiko programa Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia erkidegoek eta toki erakundeek koordinatutako prozesua bada ere, toki erakundeek aurkeztu dituzte beren HTJPak Industria eta Turismo Ministerioak deitutako Jasangarritasun Planen urteko ezohiko deialdietara (3).

Beraz, Baztan-Bidasoako HTJPari dagokionez, Cederna Garalur Elkarteak eman lezake balorazio eta adjudikazio irizpideei buruz eskatutako informazioa, elkarte horrek egin eta aurkeztu baitzuen plana, bera izan baitzen dirulaguntzaren onuradun eta berak kudeatzen baitu plana.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 26an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## 11-25/PES-00096. Galdera, Iruñerria Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Iruñerria Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 7ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak 11-25/PES-00096 galdera egin du Iruñerriko HTJPko funtsak esleitzeko irizpideei buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

"Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Estrategia" dokumentuaren azken bertsioa Turismoko Estatuko Idazkaritzaren egoitza elektronikoan argitaratuta dago, eta dokumentu horretan xehe azaltzen dira Turismo Jasangarritasuneko Planen garapena eta betearazpena osatzen duten elementu eta osagai guztiak.

https://sede.serviciosmin.gob.es/eu-es/procedimientoselectronicos/paginas/detalle-procedimientos.aspx?idprocedimiento=253

Dokumentu horren 8. apartatuan (Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Lurralde Planak), 8.1.1 puntuan, honako hau zehazten da:

8.1.1. Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planak (HTJP).

Helmuga bakoitzeko tokiko erakundeek diseinatu eta gauzatu beharreko planak dira. Helmugen arazoak konpontzeko helburua izanen dute, baldin eta estrategia honetan ezarritako helburuekin eta turismoaren arloko estatuko eta autonomia erkidegoetako dokumentu estrategikoekin lotuta badaude.

Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planen ezohiko programa Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia erkidegoek eta toki erakundeek koordinatutako prozesua bada ere, toki erakundeek aurkeztu dituzte beren HTJPak Industria eta Turismo Ministerioak deitutako Jasangarritasun Planen urteko ezohiko deialdietara (3).

Beraz, Iruñerriko HTJPri dagokionez, Iruñerriko Mankomunitateak eman lezake balorazio eta adjudikazio irizpideei buruz eskatutako informazioa, elkarte horrek egin eta aurkeztu baitzuen plana, bera izan baitzen dirulaguntzaren onuradun eta berak kudeatzen baitu plana.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 26an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

# 11-25/PES-00097. Galdera, Nafarroako Pirinioak Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Nafarroako Pirinioak Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 7ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak 11-25/PES-00097 galdera egin du Nafarroako Pirinioetako HTJPko funtsak esleitzeko irizpideei buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

"Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Estrategia" dokumentuaren azken bertsioa Turismoko Estatuko Idazkaritzaren egoitza elektronikoan argitaratuta dago, eta dokumentu horretan xehe azaltzen dira Turismo Jasangarritasuneko Planen garapena eta betearazpena osatzen duten elementu eta osagai guztiak.

https://sede.serviciosmin.gob.es/eu-es/procedimientoselectronicos/paginas/detalle-procedimientos.aspx?idprocedimiento=253

Dokumentu horren 8. apartatuan (Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Lurralde Planak), 8.1.1 puntuan, honako hau zehazten da:

8.1.1. Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planak (HTJP).

Helmuga bakoitzeko tokiko erakundeek diseinatu eta gauzatu beharreko planak dira. Helmugen arazoak konpontzeko helburua izanen dute, baldin eta estrategia honetan ezarritako helburuekin eta turismoaren arloko estatuko eta autonomia erkidegoetako dokumentu estrategikoekin lotuta badaude.

Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planen ezohiko programa Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia erkidegoek eta toki erakundeek koordinatutako prozesua bada ere, toki erakundeek aurkeztu dituzte beren HTJPak Industria eta Turismo Ministerioak deitutako Jasangarritasun Planen urteko ezohiko deialdietara (3).

Beraz, Nafarroako Pirinioetako HTJPri dagokionez, Cederna Garalur Elkarteak eman lezake balorazio eta adjudikazio irizpideei buruz eskatutako informazioa, elkarte horrek egin eta aurkeztu baitzuen plana, bera izan baitzen dirulaguntzaren onuradun eta berak kudeatzen baitu plana.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 26an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

# 11-25/PES-00098. Galdera, Plazaola-Sakana-Ultzama Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Plazaola-Sakana-Ultzama Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 7ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak 11-25/PES-00098 galdera egin du Plazaola-Sakana-Ultzama HTJPko funtsak esleitzeko irizpideei buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

“Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Estrategia” dokumentuaren azken bertsioa Turismoko Estatuko Idazkaritzaren egoitza elektronikoan argitaratuta dago, eta dokumentu horretan Turismo Jasangarritasuneko Planen garapena eta betearazpena osatzen duten elementu eta osagai guztiak xehe azaltzen dira.

https://sede.serviciosmin.gob.es/es-ES/procedimientoselectronicos/paginas/detalle-procedimientos.aspx?IdProcedimiento=253

Dokumentu horren 8. apartatuan (Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Lurralde Planak), 8.1.1 puntuan, honako hau zehazten da:

8.1.1. Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planak (HTJP).

Helmuga bakoitzeko tokiko erakundeek diseinatu eta gauzatu beharreko planak dira. Helmugen arazoak konpontzeko helburua izanen dute, baldin eta estrategia honetan ezarritako helburuekin eta turismoaren arloko estatuko eta autonomia erkidegoetako dokumentu estrategikoekin lotuta badaude.

Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planen ezohiko programa Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia erkidegoek eta toki erakundeek koordinatutako prozesua bada ere, toki erakundeek aurkeztu dituzte beren HTJPak Industria eta Turismo Ministerioak deitutako Jasangarritasun Planen urteko ezohiko deialdietara (3).

Beraz, Plazaola-Sakana-Ultzamaldea HTJPri dagokionez, Cederna Garalur Elkarteak eman lezake balorazio eta adjudikazio irizpideei buruz eskatutako informazioa, elkarte horrek egin eta aurkeztu baitzuen plana, dirulaguntzaren onuradun izan zen eta plana kudeatzen du.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 26an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

# 11-25/PES-00099. Galdera, Pirinioaurrea eta Zangozerria Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Pirinioaurrea eta Zangozerria Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 7ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak 11-25/PES-00099 galdera egin du Pirinioaurreko eta Zangozako Eskualdeko HTJPko funtsak esleitzeko irizpideei buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

“Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Estrategia” dokumentuaren azken bertsioa Turismoko Estatuko Idazkaritzaren egoitza elektronikoan argitaratuta dago, eta dokumentu horretan Turismo Jasangarritasuneko Planen garapena eta betearazpena osatzen duten elementu eta osagai guztiak xehe azaltzen dira.

https://sede.serviciosmin.gob.es/es-ES/procedimientoselectronicos/paginas/detalle-procedimientos.aspx?IdProcedimiento=253

Dokumentu horren 8. apartatuan (Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Lurralde Planak), 8.1.1 puntuan, honako hau zehazten da:

8.1.1. Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planak (HTJP).

Helmuga bakoitzeko tokiko erakundeek diseinatu eta gauzatu beharreko planak dira. Helmugen arazoak konpontzeko helburua izanen dute, baldin eta estrategia honetan ezarritako helburuekin eta turismoaren arloko estatuko eta autonomia erkidegoetako dokumentu estrategikoekin lotuta badaude.

Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planen ezohiko programa Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia erkidegoek eta toki erakundeek koordinatutako prozesua bada ere, toki erakundeek aurkeztu dituzte beren HTJPak Industria eta Turismo Ministerioak deitutako Jasangarritasun Planen urteko ezohiko deialdietara (3).

Beraz, Pirinioaurreko eta Zangozako Eskualdeko HTJPri dagokionez, Cederna Garalur Elkarteak eman lezake balorazio eta adjudikazio irizpideei buruz eskatutako informazioa, elkarte horrek egin eta aurkeztu baitzuen plana, dirulaguntzaren onuradun izan zen eta plana kudeatzen du.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 26an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

# 11-25/PES-00100. Galdera, Nafarroako Goi Erribera Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Nafarroako Goi Erribera Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 7ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak 11-25/PES-00100 galdera egin du Nafarroako Erriberagoienako HTJPko funtsak esleitzeko irizpideei buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

“Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Estrategia” dokumentuaren azken bertsioa Turismoko Estatuko Idazkaritzaren egoitza elektronikoan argitaratuta dago, eta dokumentu horretan Turismo Jasangarritasuneko Planen garapena eta betearazpena osatzen duten elementu eta osagai guztiak xehe azaltzen dira.

https://sede.serviciosmin.gob.es/es-ES/procedimientoselectronicos/paginas/detalle-procedimientos.aspx?IdProcedimiento=253

Dokumentu horren 8. apartatuan (Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Lurralde Planak), 8.1.1 puntuan, honako hau zehazten da:

8.1.1. Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planak (HTJP).

Helmuga bakoitzeko tokiko erakundeek diseinatu eta gauzatu beharreko planak dira. Helmugen arazoak konpontzeko helburua izanen dute, baldin eta estrategia honetan ezarritako helburuekin eta turismoaren arloko estatuko eta autonomia erkidegoetako dokumentu estrategikoekin lotuta badaude.

Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planen ezohiko programa Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia erkidegoek eta toki erakundeek koordinatutako prozesua bada ere, toki erakundeek aurkeztu dituzte beren HTJPak Industria eta Turismo Ministerioak deitutako Jasangarritasun Planen urteko ezohiko deialdietara (3).

Beraz, Nafarroako Erriberagoienako HTJPri dagokionez, EDER Partzuergoak eman lezake balorazio eta adjudikazio irizpideei buruz eskatutako informazioa, elkarte horrek egin eta aurkeztu baitzuen plana, dirulaguntzaren onuradun izan zen eta plana kudeatzen du.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 26an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

# 11-25/PES-00101. Galdera, Nafarroako Erribera Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Nafarroako Erribera Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 7ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak 11-25/PES-00101 galdera egin du Erriberako HTJPko funtsak esleitzeko irizpideei buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

“Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Estrategia” dokumentuaren azken bertsioa Turismoko Estatuko Idazkaritzaren egoitza elektronikoan argitaratuta dago, eta dokumentu horretan Turismo Jasangarritasuneko Planen garapena eta betearazpena osatzen duten elementu eta osagai guztiak xehe azaltzen dira.

https://sede.serviciosmin.gob.es/es-ES/procedimientoselectronicos/paginas/detalle-procedimientos.aspx?IdProcedimiento=253

Dokumentu horren 8. apartatuan (Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Lurralde Planak), 8.1.1 puntuan, honako hau zehazten da:

8.1.1. Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planak (HTJP).

Helmuga bakoitzeko tokiko erakundeek diseinatu eta gauzatu beharreko planak dira. Helmugen arazoak konpontzeko helburua izanen dute, baldin eta estrategia honetan ezarritako helburuekin eta turismoaren arloko estatuko eta autonomia erkidegoetako dokumentu estrategikoekin lotuta badaude.

Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planen ezohiko programa Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia erkidegoek eta toki erakundeek koordinatutako prozesua bada ere, toki erakundeek aurkeztu dituzte beren HTJPak Industria eta Turismo Ministerioak deitutako Jasangarritasun Planen urteko ezohiko deialdietara (3).

Beraz, Erriberako HTJPri dagokionez, EDER Partzuergoak eman lezake balorazio eta adjudikazio irizpideei buruz eskatutako informazioa, elkarte horrek egin eta aurkeztu baitzuen plana, dirulaguntzaren onuradun izan zen eta plana kudeatzen du.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 26an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

# 11-25/PES-00102. Galdera, Estellerria Maitia Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Estellerria Maitia Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 7ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak 11-25/PES-00102 galdera egin du Lizarraldea Maitia HTJPko funtsak esleitzeko irizpideei buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

“Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Estrategia” dokumentuaren azken bertsioa Turismoko Estatuko Idazkaritzaren egoitza elektronikoan argitaratuta dago, eta dokumentu horretan Turismo Jasangarritasuneko Planen garapena eta betearazpena osatzen duten elementu eta osagai guztiak xehe azaltzen dira.

https://sede.serviciosmin.gob.es/es-ES/procedimientoselectronicos/paginas/detalle-procedimientos.aspx?IdProcedimiento=253

Dokumentu horren 8. apartatuan (Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Lurralde Planak), 8.1.1 puntuan, honako hau zehazten da:

8.1.1. Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planak (HTJP).

Helmuga bakoitzeko tokiko erakundeek diseinatu eta gauzatu beharreko planak dira. Helmugen arazoak konpontzeko helburua izanen dute, baldin eta estrategia honetan ezarritako helburuekin eta turismoaren arloko estatuko eta autonomia erkidegoetako dokumentu estrategikoekin lotuta badaude.

Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planen ezohiko programa Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia erkidegoek eta toki erakundeek koordinatutako prozesua bada ere, toki erakundeek aurkeztu dituzte beren HTJPak Industria eta Turismo Ministerioak deitutako Jasangarritasun Planen urteko ezohiko deialdietara (3).

Beraz, Lizarraldea Maitia HTJPri dagokionez, TEDER Elkarteak eman lezake balorazio eta adjudikazio irizpideei buruz eskatutako informazioa, elkarte horrek egin eta aurkeztu baitzuen plana, dirulaguntzaren onuradun izan zen eta plana kudeatzen du.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 26an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

# 11-25/PES-00103. Galdera, Urdina Aragoi ibaiko bidea Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Urdina Aragoi ibaiko bidea Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 7ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak 11-25/PES-00103 galdera egin du Urdina Aragoi ibaiaren bidea HTJPko funtsak esleitzeko irizpideei buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

“Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Estrategia” dokumentuaren azken bertsioa Turismoko Estatuko Idazkaritzaren egoitza elektronikoan argitaratuta dago, eta dokumentu horretan Turismo Jasangarritasuneko Planen garapena eta betearazpena osatzen duten elementu eta osagai guztiak xehe azaltzen dira.

https://sede.serviciosmin.gob.es/es-ES/procedimientoselectronicos/paginas/detalle-procedimientos.aspx?IdProcedimiento=253

Dokumentu horren 8. apartatuan (Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Lurralde Planak), 8.1.1 puntuan, honako hau zehazten da:

8.1.1. Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planak (HTJP).

Helmuga bakoitzeko tokiko erakundeek diseinatu eta gauzatu beharreko planak dira. Helmugen arazoak konpontzeko helburua izanen dute, baldin eta estrategia honetan ezarritako helburuekin eta turismoaren arloko estatuko eta autonomia erkidegoetako dokumentu estrategikoekin lotuta badaude.

Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planen ezohiko programa Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia erkidegoek eta toki erakundeek koordinatutako prozesua bada ere, toki erakundeek aurkeztu dituzte beren HTJPak Industria eta Turismo Ministerioak deitutako Jasangarritasun Planen urteko ezohiko deialdietara (3).

Beraz, Urdina Aragoi ibaiko bidea HTJPri dagokionez, Cederna Garalur Elkarteak eman lezake balorazio eta adjudikazio irizpideei buruz eskatutako informazioa, elkarte horrek egin eta aurkeztu baitzuen plana, dirulaguntzaren onuradun izan zen eta plana kudeatzen du.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 26an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

# 11-25/PES-00104. Galdera, Nafarroako Erdialdea Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Nafarroako Erdialdea Helmugako turismo-jasangarritasunerako Planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 7ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak 11-25/PES-00104 galdera egin du Nafarroako Erdialdeko HTJPko funtsak esleitzeko irizpideei buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

“Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Estrategia” dokumentuaren azken bertsioa Turismoko Estatuko Idazkaritzaren egoitza elektronikoan argitaratuta dago, eta dokumentu horretan Turismo Jasangarritasuneko Planen garapena eta betearazpena osatzen duten elementu eta osagai guztiak xehe azaltzen dira.

https://sede.serviciosmin.gob.es/es-ES/procedimientoselectronicos/paginas/detalle-procedimientos.aspx?IdProcedimiento=253

Dokumentu horren 8. apartatuan (Helmugetako Turismo Jasangarritasuneko Lurralde Planak), 8.1.1 puntuan, honako hau zehazten da:

8.1.1. Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planak (HTJP).

Helmuga bakoitzeko tokiko erakundeek diseinatu eta gauzatu beharreko planak dira. Helmugen arazoak konpontzeko helburua izanen dute, baldin eta estrategia honetan ezarritako helburuekin eta turismoaren arloko estatuko eta autonomia erkidegoetako dokumentu estrategikoekin lotuta badaude.

Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planen ezohiko programa Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia erkidegoek eta toki erakundeek koordinatutako prozesua bada ere, toki erakundeek aurkeztu dituzte beren HTJPak Industria eta Turismo Ministerioak deitutako Jasangarritasun Planen urteko ezohiko deialdietara (3).

Beraz, Nafarroako Erdialdeko HTJPri dagokionez, Erdialdeko Garapen Partzuergoak eman lezake balorazio eta adjudikazio irizpideei buruz eskatutako informazioa, elkarte horrek egin eta aurkeztu baitzuen plana, dirulaguntzaren onuradun izan zen eta plana kudeatzen du.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 26an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

# 11-25/PES-00105. Galdera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren euskarazko eskaintzari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren euskarazko eskaintzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 7ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25/PES-00105 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Ikastetxeko plantilla organikoko plaza guztiak gaztelaniazkoak dira. Ondorioz, gure graduetako irakasgaiak gaztelaniaz ematen dira.

Gure graduetako ikasgaien talde eta eskola guztiak gaztelaniaz ematen dira.

Jarduera guztiak gaztelaniaz egiten dira.

Ikastetxeko hizkuntza-paisaia, seinaleei eta iragarkiei dagokienez, nagusiki elebiduna da.

Ez dago Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko irakasleak euskalduntzeko planik.

Iruñean, 2025eko martxoaren 25ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

---

# 11-25/PES-00106. Galdera, Pablo Sarasate Musika Kontserbatorio Profesionalaren euskarazko eskaintzari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Pablo Sarasate Musika Kontserbatorio Profesionalaren euskarazko eskaintzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 7ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25/PES-00106 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Ikastetxeko plantilla organikoko plaza guztiak gaztelaniazkoak dira. Ondorioz, gure graduetako irakasgaiak gaztelaniaz ematen dira. Hala ere, kontserbatorioak 27 espezialitateetako irakasleei askatasuna ematen die ikasleekin euskaraz komunikatzeko (eskolak emateko), ikasleak kontserbatorioan egonen diren 6 eta 8 urte arteko epean, betiere irakasleak eta ikasleak hala nahi badute.

Gure graduetako ikasgaien talde eta eskola guztiak gaztelaniaz ematen dira. Hala ere, eskolak euskaraz ematen dira, baldin eta lehen aipatutako baldintzak betetzen badira, hau da, irakasleak eta ikasleak euskaraz hitz egiten badute. Aipatutako baldintzak betetzen ez badira, ez dago euskarazko talderik edo eskolarik.

Ahozko eta idatzizko jarduera guztiak gaztelaniaz egiten dira.

Euskaraz hitz egiten duten eta beren artean, ikasleekin eta/edo familiekin komunikatu nahi diren irakasleek mezu elektronikoen bidez komunikatu daitezke, bilerak deitu, jakinarazpenak egin eta oharrak idatzi. Kontserbatorioko bisita gida-

tuak euskaraz egiten dira erakundeek hala eskatzen badute.

Hizkuntza-paisaiari dagokionez, adibidez, Pablo Sarasateren bustoa ikastetxearen sarreran jarri da ikusgai eta ondoan azalpen testuak ditu, bai gaztelaniaz eta euskaraz eta baita braillez ere.

Ez dago Nafarroako Pablo Sarasate kontserbatorio Profesionaleko irakasleak euskalduntzeko planik.

Iruñean, 2025eko martxoaren 25ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

## 11-25/PES-00107. Galdera, Nafarroako administrazio publikoetan sartzeko eta bertako lanpostuak betetzeko merezimenduak nola baloratu arautzen duen azaroaren 6ko 97/2024 Foru Dekretuari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Nafarroako administrazio publikoetan sartzeko eta bertako lanpostuak betetzeko merezimenduak nola baloratu arautzen duen azaroaren 6ko 97/2024 Foru Dekretuari buruzkoa, 2025eko martxoaren 7ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, 11-25/PES-000107 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Horri buruz, Nafarroako Gobernuko Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak jakinarazi du Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren Araubide Juridikoaren eta Gizarte Aurreikuspenaren Zerbitzuak honako hau adierazi duela:

Zenbat errekurtso jarri dira 97/2024 Foru Dekretuaren aurka? Nork jarri ditu errekurtso horiek?

| ERREKURTSOGILEA | PROZEDURAREN ZENBAKIA | EPAITEGIA/ ARETOA | ERREKURRITUTAKO EGINTZA |
|---|---|---|---|
| AFAPNA SINDIKATUA | PO 2/2025 | NANeko Administrazioarekiko Auzien aretoa | 97/2024 FORU DEKRETUA, AZAROAREN 6KOA |
| ELA ETA STEE-EILAS | PO 11/2025 | NANeko Administrazioarekiko Auzien aretoa | 97/2024 FORU DEKRETUA, AZAROAREN 6KOA |
| MENDIGORRIAKO UDALA | PO 24/2025 | NANeko Administrazioarekiko Auzien aretoa | 97/2024 FORU DEKRETUA, AZAROAREN 6KOA |
| LANGILEEN SINDIKATU ELKARTEEN FEDERAZIOA | PO 26/2025 | NANeko Administrazioarekiko Auzien aretoa | 97/2024 FORU DEKRETUA, AZAROAREN 6KOA |

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 25ean

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: M.ª Amparo López Antelo

## 11-25/PES-00108. Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak garatzen dituen Hekzuntzako kontseilariaren maiatzaren 24ko 57/2024 Foru Aginduari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak garatzen dituen Hekzuntzako kontseilariaren maiatzaren 24ko 57/2024 Foru Aginduari buruzkoa, 2025eko martxoaren 7ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25/PES-00108 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Honako ikastetxe hauek adierazi dute kezka:

• Joakin Lizarraga HLHIP Ezartzeko malgutasuna eskatu dute

• Virgen de Nievas HLHIP, A/G/D. Ikuskatzailearen ahozko kontsulta

• Marqués de la Real Defensa HLHIP, A/G/D. 6 saio ematea eskatu dute.

• Buztintxuri IP. 6 saio ematea eskatu dute.

Orain arte, ez dago jasota Hezkuntzako kontseilariaren maiatzaren 24ko 57/2024 Foru Agindua ez betetzeari buruzko eskaerarik edo proposamenik.

Iruñean, 2025eko martxoaren 25ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

---

## 11-25/PES-00109. Galdera, Hezitzaileen Eskolari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Hezitzaileen Eskolari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 7ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25-PES-00109 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

2025/2026 ikasturterako prestakuntza eskaintza 2024/2025 ikasturtean egiten ari den bera da.

Hezitzaileen zentroa lehen Paderborn-Victor Pradera ikastetxe publikoa zegoen eraikinera aldatzeko erabakia hartu zenetik, jakinarazi zen eraikina egokitzeko obrak argi eta garbi bereizitako bi fasetan eginen zirela.

Obren lehen fasea, A eraikinari dagokiona, 2024ko ekainetik irailera bitartean egin zen, eta, beraz, hezitzaileen eskola 2024ko irailaren 1ean lekualdatu zen zentro horretara.

Obren bigarren fasea, B eraikinari dagokiona, 2025eko ekainaren amaieran hastea eta 2026aren hasieran amaitzea aurreikusten da.

Joan den ikasturtean eta egungoan, Hezkuntza Departamentuko zenbait arduradunek bilera

asko egin dituzte, bai 2024-2025 ikasturtean agintaldia amaitu zuen zuzendaritza-taldearekin, bai ikastetxeko egungo zuzendaritza-taldearekin ere. Bilera horietan, honako gai hauek jorratu dira: hezkuntza eskaintza, ikastetxea lehengo Paderborn-Victor Pradera ikastetxe publikoaren eraikinetara aldatzea, obra zer fasetan garatu behar zen eta zuzendaritza-taldeak planteatutako bestelako beharrak.

Une honetan ezin dugu zehaztu bilera horiek noiz egin ziren, baina berriro diogu bilera asko egin direla zuzendaritza-taldeekin 2024-2025 ikasturteko hezkuntza eskaintza, ikastetxearen beharrak eta obren plangintza planifikatzeko, hezitzaileei erabilera esklusiboko zentro bat emateko, orain arte ez baitute halakorik izan.

Iruñean, 2025eko martxoaren 25ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

## 11-25/PES-00110. Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako eta pribatu itunduetako Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuaren prestaketa arautzen duen Hezkuntzako kontseilariaren otsailaren 19ko 16/2019 Foru Aginduari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako eta pribatu itunduetako Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuaren prestaketa arautzen duen Hezkuntzako kontseilariaren otsailaren 19ko 16/2019 Foru Aginduari buruzkoa, 2025eko martxoaren 7ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25-PES-00110 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Hezkuntza Departamentuak ez du hasten Foru Komunitateko ikastetxeen funtzionamenduari eragiten dion araudiaren arauketan eta ezarpenean esku hartzen duten foru agindu guztiak egiaztatzeko espedienterik.

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak, bere eginkizunak betetzean, ikastetxeetako urteko programazio orokorra (UPO) gainbegiratzen du, honako premisa hauen arabera:

1. Xedea

Gainbegiratzearen xedea da egiaztatzea UPO/UJPa eta ikastetxearen azken memoria zenbateraino egokitzen diren indarrean dagoen araudira eta Hezkuntza Departamentuaren plan eta jarraibideetara.

2. Berariazko helburuak

Urteko programazio orokorra/urteko jarduketa plana zenbateraino garatu diren eta zenbateraino egokitu diren ikastetxearen beharretara eta emaitzetara, indarrean dagoen araudira eta Hezkuntza Departamentuaren plan eta jarraibideetara.

Azken memorian jasotako UPO/UJPren ebaluazioaren emaitzen egokitasun maila egiaztatzea.

Ikastetxeko arduradunei aholkularitza ematea UPO/UJP eta azken memoria egiteko.

Neurri zuzentzaileak eta hobekuntzarako proposamenak eskatzea, hala badagokio.

Zuzendariak, arduradunak, organo pedagogikoak eta irakasleak ikastetxearen plangintza orokorreko prozesuan eta haren ebaluazioan inplika daitezen sustatzea.

3. Irismena

Gainbegiratzeko jarduketa araubide orokorreko irakaskuntzak eta araubide bereziko irakaskuntzak ematen dituzten eta funts publikoekin finantzatzen diren ikastetxe guztiei zuzenduta dago. Aplikazio-eremuak ez ditu barne hartzen 0-3 urte

bitarteko ikastetxeak eta musikako oinarrizko eskolak.

Ikastetxeen tipologiaren eta irakaskuntzen arabera eginen da ikuskapena.

4. Informazioa biltzeko iturriak

Hauek dira informazioa biltzeko funtsezko iturriak:

- Uneko ikasturteko UPO/UJP; aurreko ikasturtearen amaierako memoria; autoebaluaziorako 2023ko Excel dokumentua; 2023-2026 hobekuntza plana; emaitza akademikoen bilakaera (Educa); ebaluazio diagnostikoen emaitzen bilakaera (Educa); zuzendaritza-proiektua; plan estrategikoa; ikuskaritzak azpimarratutako alderdiak...

- Zuzendarien eta gainerako arduradunen adierazpenak.

5. Gainbegiratzeko teknikak eta tresnak

Informazioa biltzeko eta aztertzeko, ohiko teknikak eta tresnak erabiliko dira:

- Dokumentazio ofizialaren eta ez-ofizialaren azterketa dokumentala, emaitzak, etab.: gainbegiratze koadernoa, HIZren gainbegiratze txostena (gainbegiratze irizpideak eta errubrikak).

- Protagonisten iritziak jasotzeko elkarrizketak: gainbegiratze koadernoa, HIZren gainbegiratze txostena.

6. Tenporalizazioa

Egutegian honako ikuskapen jarduketa eta epe hauek aurreikusten dira:

- Aurreko azken memoriaren gainbegiratze emaitzak itzultzea eta egungo UPO/UJP prestatzea: irailaren 15etik urriaren 6ra.

- Egungo UPO/UJP gainbegiratzea: azaroa-apirila.

- Egungo ikasturte amaierako memoria gainbegiratzea: uztaila-abuztua-iraila.

Prozesu horren ondorioz, dagozkion txostenak eginen dira aurreikusitako epeetan:

- Hasierako bisitaren txostena: ez da aurreikusi. Online inprimakia:

- Egungo ikasturteko UPO/UJParen gainbegiratze txostena: azken eguna, apirilaren 30a.

- Egungo ikasturte amaierako memoriaren gainbegiratze txostena: azken eguna, irailaren 30a.

Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua UPO/UJPan sartu beharreko plangintza instituzionaleko dokumentuetako bat da.

Hezkuntza Departamentuak ez du planteatutako gaiekin lotutako balizko ez-betetzeen berririk. Kontrakoa adierazten duten ebidentziarik ezean, Hezkuntza Departamentuak uste du Hezkuntzako kontseilariaren otsailaren 19ko 16/2019 Foru Agindua behar bezala betetzen dela.

Iruñean, 2025eko martxoaren 25ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

# 11-25/PES-00111. Galdera, Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko martxoaren 7ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25-PES-00111 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Aurrekariak:

1. Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiaren apirilaren 13ko 139/2021 Ebazpenaren bidez (maiatzaren 21eko NAO, 119. zk.), Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan Lehen Hezkuntzako unitateen hezkuntza ituna berritzea ebatzi zen, 2012ko irailaren 1etik 2027ko abuztuaren 31ra arteko indarraldia zuena. Ebazpen horren bidez, Etxarri Aranatzeko Andra Mari Ikastolako Lehen Hezkuntzako 11 unitateren hezkuntza ituna berritu zen.

2. Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiaren apirilaren 13ko 149/2022 Ebazpenaren bidez (maiatzaren 17ko 95. NAO), 2022/2023 ikasturterako hezkuntza itunak aldatzea onetsi zen Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Hezkuntza Berezian eta Lanbide Heziketan. Ebazpen horren bidez, Etxarri Aranatzeko Andra Mari Ikastolako Lehen Hezkuntzako 11 unitateren hezkuntza ituna mantendu da.

3. Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiaren apirilaren 5eko 124/2023 Ebazpenaren bidez (maiatzaren 9ko 96. NAO), 2023/2024 ikasturterako Haur Hezkuntzako 2. zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Batxilergoko hezkuntza itunak aldatzea onetsi zen. Ez dago aldaketarik Lehen Hezkuntzan data horretara arte itundutako unitate kopuruari dagokionez.

4. 2023ko urriaren 5ean, Nafarroako Ikastolen Elkarteak jakinarazi zuen ez direla beharrezkoak Lehen Hezkuntzako 1. mailarako itundutako bi unitateak, ikasleen kopurua jaitsi delako.

5. Lanbide Heziketako, Digitalizazioko eta Hezkuntza Zerbitzuetako zuzendari nagusiaren urriaren 25eko 75/2023 Ebazpenaren bidez (2023ko azaroaren 7ko NAO, 231. zk.), aldatu egin zen Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiaren apirilaren 5eko 124/2023 Ebazpena, zeinaren bidez 2023/2024 ikasturterako Haur Hezkuntzako 2. zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Batxilergoko hezkuntza itunak aldatzea onetsi zen, Etxarri Aranatzeko Andra Mari ikastetxean 2023/2024 ikasturterako itundutako unitateak aldi baterako murrizteko, atzeraeraginezko ondorioekin 2023ko irailaren 1etik aurrera. Horrela, data horretatik aurrera, itundutako hamar unitate egonen dira, Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiaren apirilaren 13ko 139/2021 Ebazpenaren bidez itundutako hamaika unitateen ordez.

6. Langileriaren eta Azpiegituren zuzendari nagusiaren apirilaren 12ko 111/2024 Ebazpenaren bidez (maiatzaren 10eko 97. NAO), 2024/2025 ikasturterako Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako Oinarrizko, Erdi mailako eta Goi mailako Heziketa Zikloetako eta Hezkuntza Bereziko unitateetako hezkuntza itunak aldatzea onetsi zen.

Lehen Hezkuntzan, Etxarri Aranatzeko Andra Mari ikastetxe pribatu itunduari bederatzi unitate ematea, 2024/2025 ikasturterako, honako honetan oinarritzen da:

- Ikastetxeak itundutako hamar unitateetako bat galdu du 2023-2024 ikasturtean 6. mailako ikasleak tokiz aldatzeagatik:

| 2023/2024 ikasturtean itundutako unitateak | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. maila | 2. maila | 3. maila | 4. maila | 5. maila | 6. maila | GUZTIRA |
| 1 | 2 | 2 | 2 | 1 | 2 | 10 |

| 2024/2025 ikasturtean itundutako unitateak | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. maila | 2. maila | 3. maila | 4. maila | 5. maila | 6. maila | GUZTIRA |
| 1 | 1 | 2 | 2 | 2 | 1 | 9 |

• Ez da kontuan hartu Lehen Hezkuntzako 2. mailarako gela berri bat aldi baterako emateko eskaera; izan ere, 2023-2024 ikasturtean, ikastetxeak gela bakarra zuen Lehen Hezkuntzako 1. mailarako. Maila horretako 24 ikasleak 2. mailara igaroko dira eta gela bakarra izanen dute.

• Bestalde, Trantsizio Gelako ikasleek beharrezko hezkuntza-laguntzak dituzte.

7. 2024ko uztailaren 5ean apirilaren 12ko 111/2024 Ebazpenaren aurkako gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ondoren, Etxarri Aranatzeko Andra Mari ikastetxe pribatu itunduak 16,5 eskola-ordu gehigarriko zuzkidura eskatu zuen, Lehen Hezkuntzako 2. mailako gela banatu ahal izateko.

8. 2024ko abuztuaren 30ean EDUCAn 2024/2025 ikasturterako egungo matrikularen egoerari buruz lortutako datuak ikusita, Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak honako talde aurreikuspenaren proposamena egin zuen Etxarri Aranatzeko Andra Mari ikastetxe itundurako:

Ikastetxeak 173 ikasle ditu matrikulatuta Lehen Hezkuntzan, eta 2024/2025 ikasturterako bederatzi talde aurreikusten dira. LHko 2. mailako taldeak 26 ikasle ditu. Beti erabili izan da taldeak ez banatzeko irizpidea ratioak Hezkuntzaren Lege Organikoan aipatutako % 10eko gehikuntza-marjina gainditzen ez badu. Ohiko ratioa gainditzeagatik soilik egiten dira banaketak, eta 2019/2020 ikasturtetik aurrera, 2018ko ituna aplikatzearen ondorioz, Nafarroako hezkuntza sistemako ikastetxe publikoetan.

9. Langileriaren eta Azpiegituren zuzendari nagusiaren irailaren 11ko 291/2024 Ebazpenaren bidez (irailaren 26ko 196. NAO), Langileriaren eta Azpiegituren zuzendari nagusiaren apirilaren 12ko 111/2024 Ebazpena aldatzen da. Ebazpen horretan ukatzen da, batetik, Lehen Hezkuntzako 2. mailarako itundutako unitate berri bat emateko egindako eskaera, eta, bestetik, Etxarri Aranatzeko Andra Mari Ikastolari 16,5 eskola-ordu gehigarri ematea.

10. Hezkuntzako kontseilariaren urtarrilaren 20ko 8E/2025 Foru Aginduaren bidez, metatu eta ezetsi egiten dira Langileriaren eta Azpiegituren zuzendari nagusiaren apirilaren 12ko 111/2024 Ebazpenaren eta irailaren 11ko 291/2024 Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoak. Errekurtso horiek Aralarko San Migel Ikasleen eta Gurasoen Irakaskuntza Kooperatiba – Etxarri Aranatzeko Andra Mari Ikastolak jarri zituen.

2025/2026 ikasturterako aurreikuspena:

1. Langileriaren eta Azpiegituren zuzendari nagusiaren abenduaren 19ko 426/2024 Ebazpenaren bidez, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketako Oinarrizko, erdi mailako eta goi mailako Heziketa Zikloetan eta Hezkuntza Bereziko unitateetan 2025/2026 ikasturterako hezkuntza itunak aldatzeko eta hezkuntza itun berriak sinatzeko prozedura ezartzen da.

2. 2025eko urtarrilaren 27an, Etxarri Aranatzeko Andra Mari Ikastolak honako hau eskatu zuen:

a. Lehen Hezkuntzako hiru itun iragankorrak (Andra Mariko LHko 4., 5. eta 6. mailako itunak, 2025/2026 ikasturterako) eta LHko Hezkuntza Bereziko Gelako ituna mantentzea 2025/2026 ikasturtean, horiek eragin zituzten eskolatze premiek bere horretan jarraitzen baitute.

b. Bi hezkuntza itun iragankor, LHko 1. maila eta LHko 3. maila banatzeko 2025/2026 ikasturtean.

3. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuko Plangintza Arloak egindako aurreikuspenak adierazten du gaur egun Haur Hezkuntzako 3. mailan 22 ikasle daudela eta Arbizuko egoitzan lau ikasle daudela. 26 ikasle horiek Etxarri Aranatzeko Andra Mari ikastolako Lehen Hezkuntzako 1. mailan matrikulatzen badira, maila horretarako unitate iragankor bat eman daiteke; ez, ordea, Lehen Hezkuntzako 3. mailarako, 2024/2025 ikasturteko egoera berbera delako.

Iruñean, 2025eko martxoaren 26an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Lege Gordailua: NA – 363-1995 ISSN: 2254–1950